JABIER GOITIA ELORDI "KABI"

(Matxintxu euskaltegiko Didaktika arduraduna)

*Ez agurrik*
*ez adiorik*
*euskaltzaleen artean*
*beti*
*iraungo duzu bizirik*

GABRIEL ARESTI A.E.K. EUSKALTEGIA

---

KABI GOITIA

*Deustuan euskararen*
*alde diardugunok*
*faltan botako haugu*

DEUSTUKO EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ

---

## Iruñeko San Frantzizkon aparkalekua egingo dute

A.B. / IRUÑEA

Iruñeko Udalbatzak oniritzia eman zion atzo San Frantzizko plazako aparkalekuari, UPN, PSN eta EAren botoekin. Proiektuaren arabera, 284 toki izango luke aparkalekuak, hiru solairutan banatuta. Lehendabizikoa Hotel Maisonnaverentzako izango da.

Aparkalekuaren proiektuak kontrako batzorde bat sortu zuen aurkeztu zenetik, Alde Zaharreko oinezko eta bizilagunentzako kaltegarria izango zelakoan, eta jarrera berbera mantendu zuten atzoko udalbatzan HB eta IU taldeek, oso kaltegarria izango litzatekeelako aparkalekua aurrikusita dagoen oinezkoen eremuentzako, eta Inmaculada plazan egiteko mozioa aurkeztu zuten.

Mozio horretan agertu zenez, bigarren aparkaleku horrek abantail franko izango lituzke bestearekin alderatuz, hala nola toki gehiago izatea, Alde Zaharretik kanpo egotea, bestearen ehun metrora egotea eta ezaugarri berberak izatea. Mozioak ez zuen aurrera egin.

Hala ere, onartutako mozioan aldaketak egiteko aukera aipatzen da, bereziki oinezkoentzako eremua onartuz gero. Aldaketa guztiek ekar litzakeen kostuen ardura ere hartuko luke beregain Udalak. Proiektuak, oro har, 343 milioi pezetako kostua du, eta adjudikazioa 75 urterako da.

---

JABIER GOITIA ELORDI "KABI"

(Matxintxu euskaltegiko Didaktika arduraduna)

*Ni hilen naiz*
*nire arima galduko da*
*baina nire aitaren etxeak*
*iraunen du zutik*

ZURBARAN EUSKALTEGIA

---

JABIER GOITIA ELORDI "KABI"

(Matxintxu euskaltegiko Didaktika arduraduna)

*Anai-arrebok ez etsi*
*lehengo sustraiari eutsi*
*arima kendu nahi*
*digutenei*
*hortzak erakutsi*
*herri libre bat iritsi*
*nahi badugu bihar-etzi*
*arma benetan ziurrena den*
*euskarari eutsi*

BILBOKO A.E.K.

---

JABIER GOITIA ELORDI "KABI"

(Matxintxu euskaltegiko Didaktika arduraduna)

*Nork ez du maite*
*askatasuna*
*nahiz eta leher dadin*
*eskuartean*

LARRAKO A.E.K.

---

JABIER GOITIA ELORDI "KABI"

(Matxintxu euskaltegiko Didaktika arduraduna)

*Ez agurrik*
*ez adiorik*
*euskaltzaleen artean*
*beti*
*iraungo duzu bizirik*

aek BIZKAIKO A.E.K.

---

KABI GOITIA

*Euskal Herriko zeruari*
*eusten dioten*
*zuhaitzak defendatzen*
*aritu zinen*

LEKEITIOKO EGUZKI

---

JABIER GOITIA ELORDI "KABI"

(Matxintxu euskaltegiko Didaktika arduraduna)

*Ez nau izutzen*
*negu hurbilak*
*uda betezko beroan*
*dakidalako irauten duela*
*orainak ere geroan*

aek EUSKAL HERRIKO A.E.K.

---

Zazpi urtetan zehar gure azpieskualdea osatzen duten ikasguetan (Matxintxu, Larrako eta Arangoitiko gau-eskola) euskarari indar berria ematen gogorki aritu haiz. Haatik zinez diagu euskarak eta A.E.K.k militante eredugarria galdu diatela.

Deustuak sekulan ezingo dik ahaztu hik euskaltegian eta kalean euskararen inguruan eta euskal kulturaren alde aportatu duan guztia.

Laister arte Kabi.

Gora Euskal Herri euskalduna.

**Matxintxuko lagunak**

---

JABIER GOITIA ELORDI "KABI"

(Matxintxu euskaltegiko Didaktika arduraduna)

*Anai-arrebak entzun*
*ene aho hotsa:*
*izaite bat ez daike*
*hezur hutsez osa;*
*herria da gorputza,*
*hizkuntza bihotza;*
*bertzetik berextean*
*bitarik bakotxa,*
*izaite horrendako*
*segurra hil hotza.*

LEKEITIOKO A.E.K.

---

JABIER GOITIA ELORDI "KABI"

*Euskara eta Euskal Herria*
*argi osoko izar bi*
*oraindik ere goiko zeruan*
*disdiratsu daude hadi*
*gaua iluna, giroa hotza*
*biharamona oskarbi*
*zure borrokak jarraituko du*
*gure eskuetan Kabi*

MATXINTXU A.E.K. EUSKALTEGIA